

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Arizmendi Ikastolak antolatutako jarduerak diruz lantzea

ESPEDIENTEA: 2026TDIR0003

INTERESDUNA: ARIZMENDI IKASTOLA KOOP (IFK: F20679387)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du ARIZMENDI IKASTOLA KOOP-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Hezkuntza teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta ARIZMENDI IKASTOLA KOOP-ren (IFK: F20679387) artean egin beharreko hitzarmena.

BIGARRENA.- ARIZMENDI IKASTOLA KOOP-ri 3.000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoak antolatzeko:

- Sexologia tailerra, Samurrak Aniztasuna elkartearen eskutik.
- Sexu Aniztasunak formazioa irakasleei, Kiur Taldearen eskutik.
- Antzerki emanaldia eta hausnarketa, Transeduca Acció Educativa-ren eskutik.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren zortzigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta hezkuntza arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 3.000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.471.324.00.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026TDIR0003-Alkate erabakia/Resolución (ARIZMENDI SDAD COOP)